

593. ZENBAKIDUN
ALKATETZAREN DEKRETUA

Planteatutako gaia

Bermeoko Udaleko suteei eta lapurretei aurre egiteko baliabideen mantenimendu zerbitzua behin betiko esleitzea.

Argudioak

Lehenengoa: 2008ko abenduaren 24ko Tokiko Gobernu Batzarrak 28. erabagi bidez, kontratazino honetarako baldintza-agiriak onartzea eta deialdia zabaltzea onartu eban.

2009ko urtarrilaren 28ko BAO n argitaratu zan prozedura negoziatu bidezko kontratazino hau. Lizitazio prezioa: 90.344,83€. Epea: urte bi (2) gehi luzapena beste urte bi (2) alde biak ados badagoz.

Bigarrena: Hiru enpresa kreditatu dabe kontratu hau egiteko gaitasun eta kaudimena. Horreetatik bik aurkeztu dabe eskaintza epearen barruan, (2009/03/13 azken eguna): SERCOIN SA eta SABICO SEGURIDAD SA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2009ko apirilaren 29ko 30. erabagi bidez, behin-behineko esleipena SERCOIN SA enpresearen alde emon eban, puntuaketa altuena lortzeagaitik.

Laugarrena: Bermeoko Udaleko web orriko kontratistearen profilean argitaratua izan da behin-behineko esleipen hori, 2009ko maiatzaren 6tik eta argitarapenaren legezko epea bete ondoren, ezelango alegazinerik edo erreklamazinerik ez da aurkeztu.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: 2009-05 kontratua SERCOIN SA enpreseari behin betiko esleitzea Bermeoko Udaleko suteei eta lapurretei aurre egiteko baliabideen mantenimendu zerbitzua, baldintza plegu tekniko eta administratiboaren arabera, puntuaketa gehien atera dauan eskaintza izan dalako.

BIGARRENA: Jagokon kontratua sinatzea urte biko eperako, luzagarria beste urte birako alde biak ados agertzen badira.



HIRUGARRENA: Gainontzeko partaideei honen barri emotea, eta behin-behineko fiantzak eta aurkeztutako agiriak itzultzea.

Bermeon, 2009ko ekainaren 8an
ALKATEA

NIRE AURREAN
JARDUNEKO IDAZKARIA

The image shows a handwritten signature in blue ink on the left, which is a stylized cursive script. To the right of the signature is a circular official stamp. The stamp contains a central rectangular area with illegible text, surrounded by a circular border with some text. A long, horizontal, wavy line is drawn across the top of the stamp and extends to the right.